

$\{(x_1, y_1), (x_2, y_2)\}$ kontsumoaren ikuspuntutik efiziente izateko:

$$1. \left. \begin{array}{l} x_1 + x_2 = x_1^w + x_2^w \\ y_1 + y_2 = y_1^w + y_2^w \end{array} \right\} \text{dena banatu behar da}$$


$$2. |OEM_1(x_1, y_1)| = |OEM_2(x_2, y_2)|$$

Horrela bada, esleipen horretan:

1. Ekonomian dagoen guztia banatzen da eta
2. Ez dago elkarrekiko hobekuntza eremurik

Kontsumorako kontratu kurba: kontsumoaren ikuspuntutik efiziente diren ondasunen esleipenek osatuko dute. **Gorriz**

Nukleoa: hasierako zuzkidurarik bada, kontsumoaren ikuspuntutik efiziente diren ondasunen esleipenek osatuko dute. **Urdinez**



$\{(L_x, L_y), (K_x, K_y)\}$ ekoizpenaren ikuspuntutik efiziente izateko:


1.
$$\left. \begin{array}{l} L_x + L_y = L \\ K_x + K_y = K \end{array} \right\} \text{ dena erabili behar da}$$

2.
$$|OET_x(L_x, K_x)| = |OET_y(L_y, K_y)|$$


Horrela bada, faktoreen esleipen horrekin:

1. Ekonomian dauden faktore guztiak erabiltzen dira eta
2. Ez da posible ondasun baten ekoizpena handitzea bestearena murriztu gabe

Ekoizpenerako kontratu kurba: produkzioaren ikuspuntutik eficiente diren faktoreen esleipenek osatuko dute. **Gorriz**



Ekoizpen Ahalmen Muga: ekoizpenaren ikuspuntutik
efiziente diren x eta y ondasunen konbinaketek osatzen dute.
Ekoizpenerako kontratu kurbatik eratorria!



EAM-ren malda = x ondasunaren aukera kostua
= **Produktuaren Eraldaketa Erlazioa**

Kontsumorako kontratu kurbako esleipen guztiak Paretoren zentzuan efizienteak al dira? Ez!
EAMko esleipen guztiak Paretoren zentzuan efizienteak al dira? Ez!


Ondasunen eta faktoreen esleipena Paretoren zentzuan efiziente izateko,
kontsumoaren eta ekoizpenaren ikuspuntuetatik efizientzia eskatzeaz gain,

$$|OEM_1(x_1, y_1)| = |OEM_2(x_2, y_2)| = |PEE(x, y)|$$

ere eskatuko dugu.

Hau da, emaitza **esleipenaren ikuspuntutik efiziente** izan behar da:
ekoizpena aldatuta ezinezkoa izan behar da norbaiten egoera hobetzea
ez bada beste baten kaltetan.

y ondasuna



B arbitrarioki hartuta:

A Paretoen zentzuan efizientea da.

E ez da efizientea Paretoen zentzuan.

Zenbat esleipen dira Paretoen zentzuan

efiziente? Infinito. Izan ere kutxa asko izan

ditzakegu eta kutxa bakoitzaren barruan puntu anitz!

Laburbilduz:

Ondasunen eta faktoreen esleipena **Paretoren zentzuan efiziente** izateko:

1. ondasunen esleipena kontsumoaren ikuspuntutik efiziente izan behar da, hau da, kontsumorako kontratu kurbako puntua:

$$\left. \begin{array}{l} x_1 + x_2 = x_1^w + x_2^w \\ y_1 + y_2 = y_1^w + y_2^w \end{array} \right\}$$

$$|OEM_1(x_1, y_1)| = |OEM_2(x_2, y_2)|$$

2. faktoreen esleipena ekoizpenaren ikuspuntutik efiziente izan behar da, hau da, ekoizpen ahalmen mugako puntua:

$$\left. \begin{array}{l} L_x + L_y = L \\ K_x + K_y = K \end{array} \right\}$$

$$|OET_x(L_x, K_x)| = |OET_y(L_y, K_y)|$$

3. ondasunen eta faktoreen esleipena aldeberean esleipenaren ikuspuntutik efiziente izan behar da:

$$|OEM_1(x_1, y_1)| = |OEM_2(x_2, y_2)| = |PEE(x, y)|$$